



*Ehunlaria, gorulariak eta beste ogibide batzuk  
ihesi doaz. Tamala dan arren, aldiari berea  
emon behar jakonez gero, bihoaz ordu onean.*

***Baina euskerea galduten badogu,  
gure sinesmena baztertuten badogu,  
eusko herririk ez da izango.***

*Bakoitzari bere garrantzia. Herriaren izaterik  
minenak gorde behar dira, ez azalekoak.*

***Mamia sakonean dago. Muina dozuz elea  
edo hizkuntza, obiturak, edestia, elertia.***

## Esteban Urkiaga

1905-1937

# Lauaxeta

*Zelaira doa neskatxa  
—haizea dabil loretan—,  
zelaira doa neskatxa  
maitasun-kanta kantetan*

*Berrehun gudari oso sumin  
gartzelupean dagoz hilik.  
Ordutik hona —zenbat laino—  
Nafarroan ez da aberririk*

**DANA EMON BEHAR JAKO  
MAITE DAN ASKATASUNARI**

*Maitatzen bazaitut itaundu deutsozu  
leihoan klisk dagien argi izpiari*

**Goiz eder honetan hil behar nabe  
txindor baten txintak gozotan nauala**

*Goizeko galdatara  
txakurrak etzunik.  
Harri gainean datzaz  
begiak itxirik*

**MUNGIAKO IBAI ZABALA  
IBAI EDERRA BAI DALA.  
ITSASORANTZA LORAZ DAROA UR LO APALA**

**Gazteri horren deiadarra  
bai dala deiadar zolia!  
Aberri baten saminez  
urduri dabil herria**

**Din-dan balendan  
elizako ateetan  
gizon bat dilindan**